

Azoka BER **g**ara tzen



**Haur eta Gurasoentzat Aisialdi Gunea
2014ko Martxoa eta Apirila.**



1go SAIOA Martxoak 15

▪ Talde dinamikan jasotako ekarpenak.

Behin hitzaldiak eginda eta eredu desberdinak ezagututa, bertaratutako eniritziak jaso nahi izan dira talde dinamika baten bitartez. Horretarako, honako galderak luzatu zaizkie parte hartzaileei:

1. Ze aisialdi nahi dugu Bergaran?
2. Ze behar/kezka dago arlo honetan Bergaran?
3. Ba al daukazu proposamen zehatzik?

Hauek dira galdera bakoitzaren gainean jaso diren ekarpenak:

BERGARARAKO NAHI DUGUN AISIALDIAREN INGURUANA JASOTAKOAK.

- **BERGARAKOA:** Bergarako errealitatean oinarritua.
- **IREKIA:**
 - o Ez pareta batzuetara mugatua
 - o Herriarekin eta auzoarekin kontaktua/harremana izango duena
 - o Herri osora zabalduko dena eta herriko espazioak aprobetxatuko dituena
 - o Eskola ezberdinen esparrua gainditu eta bateratzera zuzendua
- **HAURRAK ARDATZ:**
 - o Haurren interesetan errotutakoa. Ez helduen programaziotik ateratakoa
 - o Umeen erritmo, interes eta gogoak errespetatuko dituena
 - o Haurrentzat askatzailea. Askatasuna eta autonomia sustatuko duena
- **GURASO ETA HEZITZAILEEN ELKARLANA:**
 - o Guraso eta hezitzaileek elkarrekin onartua eta bultzatua
- **ADIN DESBERDINAK UZTARTUKO DITUENA**
- **HEZITZAILEA**
- **EUSKALDUNA**
- **INKLUSIBOA:**
 - o Komunitate dena batuko duena, herri osoa inplikatur
 - o Aniztasuna onartu eta sustatuko duena
- **PARTE-HARTZAILEA ETA ERAIKITZAILEA**
- **ALAIA**

- **ARLO DESBERDINAK BATUKO DITUENA:**
 - o Naturarekin harreman estua
 - o Musika, eskulanak eta kirola bultzatzen duena
- **MOMENTUKOA, INPROBISAZIORAKO AUKERAK**
- **GENERO BERDINTASUNA**

ZE BEHAR/KEZKA DAGO ARLO HONETAN BERGARAN?

- **ESPAZIOAK:**
 - o Aisia sortzailerako guneen falta.
 - o Dauden espazioek debeku asko.
 - o Autoek aisialdiko gune batzuk hartuak dituzte
 - o Dauden espazioen erabilera birplanteatu beharra
 - o Umeen jolaserako aterpe/espazio itxi gutxi dago. Euria dagoenean etxera edo tabernara joan beharra.
 - o Leku fisikoa falta da 0-3 urte bitarteko haurrentzat eta beraien gurasoentzat
 - o Txiki-txokoak:
 - Urruti xamar geratzen diren sentsazioa.
 - Ume nagusiagoak ere egoten dira (beste haurren anai-arrebak) Nola erregulatu?
 - o 7-12 adin tarteko espazio eta eskaintza gutxi.
- **GURASOAK:**
 - o Topagune bat beharrezkoa da:
 - Gurasoen kezka, zalantza eta nahiak espresatu eta partekatzeke gune bat.
 - Gurasoak antolatu beharra daukate eta horretarako gune espezifikoko bat erraztea beharrezkoa da
 - Gurasoen arduren inguruko lanketa beharrezkoa da.
 - Etxe barruko harremanen inguruan lan egin beharra dago. Etxe barruko aisialdia telebista eta telefonotik haratago bultzatu behar da.
 - Gurasoen parte-hartzea sustatu behar dugu
 - Gurasoei baliabideak eman behar zaizkie, umeei komunikazioa lantzeko formakuntza
- **HAURRAK:**
 - o Umeen aisialdia gurasoen premien arabera antolatzen da.
 - o Kanean ume gutxi dago, denak okupatuta daude eskolaz kanpoko hainbat ekintzetan.

- Umeen antolaketa bultzatu behar da
- **HEZITZAILEAK:**
 - Hezitzaileek zaintza funtziora mugatu beharrean, beste funtzio batzuk ere txertatu beharko lituzkete:
 - Gurasoekin harremanak, umeen parte-hartzea, aldameneko auzoko eragile eta auzotarrekin harremanak...
 - Aisialdia sustatu behar da, ez horrenbeste zaintza
 - Aisialdia zerbitzutan informazio eta lanpostu gehiago behar dira
 - Ludotekan hezitzaile gutxi dago, zerbitzu mugatua da eta zaintzara dago bideratuta gehienbat.
- **NERABEAK:**
 - Gaztelekua: kezkatik bizi dute herritar batzuk.
 - Gazte lokal pribatuek harremanak oztopatzen dituzte
 - Nerabezaro garaiko aisialdia potentziatu beharra dago. Giza aldaketa garai konplikatuak da eta laguntza edo orientazio fisiko-afektibo-soziala beharrezkoa da pertsonak era integrarean heldutasunera heltzeko.
- **ETORKINAK:**
 - Etorrinen inguruan eskola publikoan zergatik bideratzen diren horrenbeste etorkin galdetu da, kezka baitago honen inguruan, euskararen erabilera aztertzean, ...
 - Auzoetan batez ere, etorkinak integratzeko beharra
- **BESTE BATZUK:**
 - Aisialdia eta erronka berrien egokitzapena. Herrigintzan oinarritua beharko luke. Egitura falta ikusten da, koordinazio beharra.
 - Egin diren eskaintza edo ekimen desberdinetan kopuruari erreparatu zaio gehienetan eta masifikazioek lana egiteko ezintasuna ere ekarri dute.
 - Aste bukaeretan bakarrik dago eskaintza
 - Udalekuen formula birplanteatu behar da.
 - Hausnarketa bultzatu beharra dago.

PARTE HARTZAILEEN PROPOSAMENAK

- **ELKARLANA:**
 - Guraso, Udala eta hezitzaileen artean lana uztartzea
 - Elkar behar dugunaren ideia zabaltzea
 - Eragile desberdinak bilduko dituen egitasmoak: politiko, hezitzaile, haur, elkarte, kultura, gaztetxe,...

- Aisialdian lan egiten duten elkarte desberdinen arteko zubiak. Elkarlana.

- **GURASOAK:**

- Haur eta gurasoentzako ekintza gehiago.
- Jai eta ospakizunetan guraso eta haurrentzako ekintzak antolatu
- Gurasoei inkesta eta parte-hartzeko beste baliabide batzuk zabaltzea
- 0-3 urteko haurren gurasoek, beste gurasoek baino inplikazio handiagoa dute. Hor lanketa egiteak onura ekar dezake hurrengo faseetarako
- Formazioa iraunkorki eskaintzea ezinbestekoa da: horrelako topaketak beti dira onuragarriak.
- Aisialdian gurasoei ere lekua egin, bakoitzak aportatzeko duena kontuan hartu
- Txiki-txokoak espazio libreak direnez, ona litzateke gurasoek horien dinamizazio lanak hartzea tarteka: guraso elkarte bat sortu daiteke Oxirondo edota Txiki-txokoen bueltan?

- **HAURRAK:**

- Ludoteka 4 urtetik beherakoentzat ere zabaltzea.
- Haurren parte-hartzea sustatu: beraien hitza kontutan hartu, agian elkargune bat sortuz.
- Adin tarte desberdinen arteko harremanak aberasgarriak dira eta eredu berrian hori kontutan hartu beharko litzateke: ez hain eremu itxiak, zurrinak, adinen araberakoak.
- Eskolaz kanpoko aisialdi ekintzetan eta eskola kirola egitarauan etorkinen parte hartzea suspertzea (adibidez pakistandarrak gerturatzeko kriketa kirolen artean kontuan izan)

- **GUNEA BERRIA:**

- Azokako gunea aproposa izan daiteke beste eredu bat garatu ahal izateko. Halere, hau froga bezala planteatu beharko litzateke, gero beste auzo batzuetara zabaldu ahal izateko (Martokua,...)
- Psikomotrizidadeko gune zabal bat
- Gela multisensorial bat ondo legoke.

- **AISIALDIA:**

- Aisialdi askea sortzea: haurrek eraikiko dutena, irekia, haur eta gazteek aukeratutako espazio naturalak errespetatuko dituen, helduok laguntzaile izango garena.
- Aisi gune, jolasgune mapa herritarra sortu eta jolasa sustatu: ze espazio dago herrian jolasteko? Jolasak du lehentasuna lema.

- Eguraldi txarra dagoenerako aisialdi guneak sortu.

- **BESTEAK:**
 - Haur liburutegia astebukaeretan ireki (baita nagusia ere)
 - Behar bereziak dituzten umeak ere kontutan hartu
 - Haur eta gazteen aisialdiko ibilbidea falta da Bergaran. Ekimen eta planteamendu isolatuak egin beharrea, zerbait integralago bat sortu eta elkarlanean egiteko premia dago (Txatxilipurdi eta Arrasateko Udalaren ibilbidea jarri da adibide bezala)
 - Poligono inguruan, lorategi eremuak hesituta daude. Ondo legoke horien erabilera sustatzea, hurrek jolasteko, merendatzeko, etab.

2. SAIOA Martxoak 26

Martxoak 15ean izandako hausnarketa jardunaldian jasotako ezaugarriak aurkeztu eta gehitu, kendu edo aldatzearen aukera aztertu ondoren, onespena eman zaie, eta taldekako lana egin da ezaugarri hauek planoan islatzeko.

Azkenik talde bakoitzetik ateratako ideiak bateratu egin dira bertaratuko guztien artean.

- **2. Saioan, martxoak 26 arratsaldean, talde dinamikan jasotako ekarpenak.**

Talde dinamikan eztabaidatutako ezaugarriak eta hauen inguruan egindako ekarpenak:

	1. Taldea	2. Taldea	3. Taldea
- BERGARAKOA: Bergarako errealitatean oinarritua.	<ul style="list-style-type: none"> ○ Bergaran, eskolen artean dagoen banaketa apurtuko duen espazio amankomuna behar da. ○ Gune honen barruan egiten dena kanpora atera behar da eta kalean egiten dena (eragileek egiten dutena) barrua islatu. 	○	○

<p>- IREKIA:</p> <ul style="list-style-type: none"> o Ez pareta batzuetara mugatua o Herriarekin eta auzoarekin kontaktua/harreman a izango duena o Herri osora zabalduko dena eta herriko espazioa aprobetxatuko dituen o Eskola ezberdinen esparrua gairatu eta bateratzera zuzendua 	<ul style="list-style-type: none"> o Agian apuntatzeko sistema jarri beharko litzateke o Guneak asteburuetan ere irekita egon beharko luke. Asteburuetan dinamika berezia izan beharko luke: tailer bereziak begiraleek gidatuta, gurasoek gidatuta... 	<ul style="list-style-type: none"> o Espazioetako bat guztiz irekia izatean astean 7 egun. Gune hau 0-8 tartekoentzat. o Hezitzaileentzat zaila izan daiteke sartu-irtenak kontrolatzea baldin eta espazioa guztiz irekia bada. Bertan dauden umeen kontrola eraman beharko litzake. o Bazkidetza moduko ereduren bat aurkitu beharko litzake. 	<ul style="list-style-type: none"> o Gurasoek ere bertan parte hartzeko aukera o Guneak asteburuetan ere irekita egon behar luke. Agian dinamika edo tailer desberdinak txertatuz. o Asteburuetan ludoteka eremua ere erabili ahal izatea espazio librerako.
<p>- HAURRAK ARDATZ:</p> <ul style="list-style-type: none"> o Haurren interesetan errotutakoa. Ez helduen programaziotik ateratakoa o Umeen erritmo, interes eta gogoak errespetatuko dituen o Haurrentzat askatzailea. Askatasuna eta autonomia sustatuko duena 	<ul style="list-style-type: none"> o 	<ul style="list-style-type: none"> o Gunearen izena umei utzi beharko zitzaizkien jartzen o 	<ul style="list-style-type: none"> o Haurrak ardatza izan behar dute gunean. Beraien behar eta nahietara egokitutako gunea izan behar du. o Beraien iritzi eta ekarpenak ere txertatu behar dira gunean eta antolaketan.

<p>- GURASO ETA HEZITZAILEEN ELKARLANA:</p> <ul style="list-style-type: none"> o Guraso eta hezitzaileek elkarrekin onartua eta bultzatua 	<ul style="list-style-type: none"> o Gurasoek umearekin egon nahi dute, beraz, espazioa konpartitu beharko dute. o Gurasoek eta hezitzaileek dinamizatu beharreko gunea izango da. o Guraso batzuk, bertan egongo dira, beste batzuk ordea ez. Hori ere uztartu egin beharko da. o Gurasoei inplikazioa eta jarrera egokia eskatu beharko zaie. o Guraso eskolak sor daitezke. 	<ul style="list-style-type: none"> o Gurasoen formakuntza beharrezkoa da. o Gurasoen parte-hartzea ordenatu nahian, araudi bat adostu beharko litzake, bakoitzaren rol eta ardurak argi utziz. o Guraso eta hezitzaileen elkarlanerako, espazio bat baino, dinamikak sortu beharko lirateke. o 0-4 tarteko gunean gurasoen presentzia beharrezkoa izango da. 	<ul style="list-style-type: none"> o Gurasoek umeekin egoteko aukera izan behar dute. o Gurasoen papera, rola eta funtzioak definitu beharko dira. o Gurasoak izan daitezke hezitzaileekin batera gune horren kudeaketa eta antolaketa eramango dutenak. o Guraso talde edo asanblada bat sortzea egokia litzateke: tailer edo dinamika desberdinak sustatzeko. o Gurasoentzat txoko bat aurreikusi beharko litzateke: baina ez finkoa, moldagarritasunarekin jokatu. o Ludotekan ere, puntualki bada ere gurasoek lekua izan beharko lukete: ekintza desberdinak burutu,...
---	---	--	--

<p>- ADIN DESBERDINAK UZTARTUKO DITUENA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ○ Haur txikientzako (oraindik oinez ez dabiltzanak) gune berezia egon beharko da. ○ 8-12 urte bitartekoek beraien espazioa behar dute, hala ere dinamika amankomunak egin beharko dira (adin tarte desberdinak nahastuz) ○ Espazioa adinka banatu beharrez, gunea banatu daiteke: gune lasaia, mugimendurako gunea, etab... 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Asteazken zehar adinka banatzea. ○ 0-4, 4-8 eta 8-12 urte tarte arteko nolabaiteko banaketa egin beharko litzake ○ Adin tarte desberdinen arteko hartu-emanen sustatu beharko litzateke. ○ Asteazkenaren beste zatiketa bat aztertu 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Ludoteka: 3-12 urte bitarteko haurrentzat. ○ Eremita librea: 0-8 urte bitarteko haurrentzat. Baina heldu baten ardurapean beti. ○ Agian 0-3 urte bitartekoentzat eremu diferentziatua.
<p>- HEZITZAILEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ○ 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Proiektu hezitzailea den heinean hezitzaileak egon beharko lirateke gune guztietan ○ Ardura hezitzaileena izan beharko litzake, eta gurasoen parte-hartzea, elkarlanean bai baina ekintza puntualekara mugatu. ○ Zaintza zerbitzua bakarrik ez egotea 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Hezitzaileak bi eremuak izango lirateke: baten hezitzaileekin eta bestean gurasoen ardurapean.

<p>- PARTE-HARTZAILEA ETA ERAIKITZAILEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ○ Gurasoen eta haurren parte-hartzea bilatu behar da. ○ Behin gunea martxan dagoela, gurasoak komunitate bat sortzera animatuko lirateke. ○ Kudeaketan ere gurasoek eta hezitzaileek parte hartu beharko lukete. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Astebukaeratan 8-12 urte arteko gazteentzako Txapligu zerbitzuarekin elkarlana bultzatu beharko litzateke. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Guraso eta haurren partehartzea bilatu behar da. ○ Guraso talde bat sustatzeko aukera bilatu.
<p>- MOMENTUKOA, INPROBISAZIORKO AUKERAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> ○ Dena programatu beharrean, bat batekotasuna bideratzeko ez dago zertan dena programatu behar. Horrela umeen premietara gehiago egokituko litzateke. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ 	<ul style="list-style-type: none"> ○

<p>BESTE EKARPENAK:</p>	<p>○</p>	<p>○</p>	<ul style="list-style-type: none"> ○ Ludoteka: 3-12 urteko haurrentzat. <ul style="list-style-type: none"> - Gutxienez astean zehar arratsaldetan - Gurasoek hezitzaileekin ere programaketa uztartu ○ Eremu librea: <ul style="list-style-type: none"> - 0-8 urteko haurrentzat. - Nagusi baten ardurapean - Astean zehar : goiz eta arratsaldez aukera - Asteburuetan: aukera
--------------------------------	----------	----------	---

Talde dinamikan eztabaidatu ez diren ezaugarriak:

Ezaugarri hauek ez dira lan taldeetan eztabaidatu, hauen izaeragatik onartutzat ematen direlako ezaugarri hauek.

- **EUSKALDUNA**
- **INKLUSIBOA:**
 - **Komunitate dena batuko duena, herri osoa inplikatzuz**
 - **Aniztasuna onartu eta sustatuko duena**
- **ALAIA**
- **ARLO DESBERDINAK BATUKO DITUENA:**
- **GENERO BERDINTASUNA**

3. Saioan, apirilak 2 goizez, talde dinamikan jasotako ekarpenak.

Talde dinamikan eztabaidatutako ezaugarriak eta hauen inguruan egindako ekarpenak:

GUNEA:

- Ez dago zertan espazioa bi zatitan banatu, bat espazio gidatua eta bestea espazio librerako. Biak uztartu daitezke eremu guztian.
- Gurasoak eremu osoan egon daitezke beraien hurrekin.
- Planoan dauden bi espazioak batzeko ahalegina egin beharko litzateke, haurren segurtasuna eta hezitzaileen erantzukizuna bermatzeko. Atzeko aldetik egitea ikusi da bideragarriena.
- Bi espazioen artean umeentzat zubi edo txirrista antzeko bat.
- Gurasoek espazio bat beharko lukete, ez du zertan finkoa izan, espazioa moldatzeko aukera aurreikusi beharko da.

ADINAK:

- Adin tarteka espazioak antolatu beharrean, gune edo espazio bereizgarriak egitea egokiagoa da: gune lasaia, psikomotrizitate gunea, gune bizia, eskulan gunea, ...
- 0-2 urte arteko haurrentzako gunea argiago bereiztea proposatu da, behar oso zehatzak dituzten heinean.
- Inklusioa bilatu behar da, adin bereizketak gaindituz.
- 0-3 urte bitarteko haurrak gurasoekin edo arduradun batekin egon beharko lirakeke nahi eta nahiez.
- 8 urtetik gorako hurrekin zer? Ez dute gurasoekin egon nahi, baina era berean leku estali baten beharra dute. Urte tarte horretarako haurrak era egokian daudela bermatzeko ardurako pertsona bat beharko litzateke.
- 2-8 urte bitarteko haurrak gurasoekin egoteko aukera izan beharko lukete, era berean hezitzaileak ere egon beharko lirakeke gunearen arduradun bezala.

GURASOAK:

- Gurasoek bertan parte-hartzeko aukera izan beharko lukete.
- Gurasoekin lanketa berezi bat egitea komeniko litzateke, hezitzaile eta gurasoen artean hezkuntza edo aisialdi eredu finkatu eta aurrera eramateko.
- Guraso talde bat sortzea onuragarria litzateke, hezitzaileekin batera elkarlanerako. Kudeaketan ere zeresan handia izan dezakete gurasoek.
- Gurasoen ordezkari izango duen zuzendaritza batzorde bat sortzea aproposa litzateke.

HAURRAK:

- Nahiz eta espazioaren antolaketan proposamen bat landuko den, erabiltzaile izango diren hurrekin batera egitea beharrezkoa da.

ASTEBURUAK:

- Asteburuan zaintzaile bat egotea aurreikusi da, gunea zabaltzeko eta itxiz gain, bertako segurtasuna eta funtzionamendu egokia bermatzeko (materialak, haurrak gurasoen ardurapean,...)



- Arratsalde batzuetan tailer edo ekintza programatuak egotea proposatu da. Agian ez dago hezitzaileen beharrik, gurasoek antolatutako ekintzak izan daitezke.

BESTE BATZUK:

- Hasierako proposamena martxan jarri eta denboran moldatzeko malgutasuna izatea beharrezkoa da.
- Hezitzaile eta gurasoen artean araudi bat egitea ezinbestekoa da.
- Proiektua hasiera hasieratik elkarlanean sortu beharko litzateke: hezitzaileekin eta gune horren guraso erabiltzaile potentzialekin.
- Masifikazio arriskua ondo neurtu beharko da, maximo batzuk jarriz, adibidez, hezitzaileko.
- Kontutan hartu beharko da, guraso kopuru handia egonez gero, haurrentzako espazioa txikiagoa egiten dela.
- Hasieran helburuak markatu eta ondoren hitoen bidez helburu horiek lortzen joatea da biderik onena, bestela denera heltzeko zailtasunak egon daitezke.
- Kanpokaldean haurrentzat ziburu estaliak egitea proposatu da, eta nolabait aisialdi guneko ekintzetan ere kanpoko espazioa erabiltzea.
- Herriko eragileekin elkarlana bultzatu beharko litzateke

4.eta 5. SAIOAK Apirilak 9 eta 14

1. Aurreko saioetan ezarritako premisak:
 - Guraso eta hezitzaileek elkarrekin onartua eta bultzatua.
 - Gune librean haurrak heldu baten ardurapean egon beharko dira (guraso, familia, lagun..). Zalantzak 8-12 urtekoen kasuan.
 - Ludoteka (3-12 urte) astean zehar arratsaldez
 - Haurrak ardatz
 - Malgutasuna
 - Gurasoen arteko antolaketa eredu bat bultzatu daiteke.
2. Talde lana:
 - a. 2 ereduaren arteko analisi eta konparaketa



- b. Talde lana: Gune irekia noiz? Goiz eta aste-bukaeratan zer? Zein izango da gune irekiaren eremua?
- c. Talde lana: guneak adinka edo ezaugarri bereiziko dira?

4. Saioan, apirilak 9 arratsaldean, talde dinamikan jasotako ekarpenak.



1. 2 ereduaren arteko analisi eta konparaketa
 - Gune bakarra izatea oso ideia ona dela aipatu da, baina egunerokotasunean kudeatzeko oso zaila.
 - Ardura kontuak: Gidatutako zein irekia izango litzatekeen gune bakarrean, begiraleen ardurapean egongo liratekeen haurren kontrola eramatea ia ezinezkoa dela aipatu da.
 - Denon artean Aisialdi gunea, 2 gune bereizitan banatu beharko litzatekeela adostu da. Nahiz eta honek ez lukeen mugatu behar bi guneen arteko erlazioa, bien arteko elkarlana bultzatuz, zein batek bestearen espazioen erabilera erraztuz. Gainera, nahiz eta gune bat hezitzaileek gidatua izan, gurasoek bertan partehartzeko aukera zabaldu behar dela aipatu da, gurasoak ez daitezela kanpotar sentitu baina bestalde hezitzaileak ere eroso sentitu daitezela beraien lanean. Normalean gatazkak sortu ohi dira.
 - Gune gidatua: sartu eta ezkerretara dagoen gunea izango litzateke, sukaldea eta begiraleendako bulegotxo dagoen gunea. 3-12 urte bitarteko haurrentzat izango litzateke zerbitzua, astegunetan eta arratsaldean.

- Gune librea: sartu eta eskumara geratzen den espazioa litzateke, bertan kalefakzio erradiatua dago aurreikusita eta sarreran haurren kotxeak uzteko eremua.
2. Talde lana: Gune irekia noiz? Goiz eta aste-bukaeratan zer? Zein izango da gune irekiaren eremua?
- Goizez gune askearen zati txiki bat besterik ez irekitzea proposatu da, eta erabileraren arabera hau egokitzen joatea. Gune hau 0-3 adin tartekoentzat litzateke, nahiz eta nagusiagoek ere lekua izan dezaketen. Baina astegunetan goizez, eskolaratu gabeko haurrak bakarrik direnez erabiltzaile potentzialak, beraienez zuzendua egongo litzateke.
 - Aste-bukaeratan aldiz, goiz eta arratsaldean irekitzea proposatu da.
 - 0-7 urte bitarteko haurrek erabiliko lukete zehaztutako espazio aske hori, nagusi baten ardurapean (guraso, aiton-amona, ...)
 - Korapilo nagusia 8-12 urte bitarteko haurrekin nola bideratu adostea izan da. Espazio berdina ezingo lukete 0-12 urte bitarteko haurrek partekatu, batez ere, 8-12 adin tartean, haurrek ez baitute gurasoekin egon nahi. Baina nolabait adin tarte horren espazioa, guztiz autonomo erabiltzeko izan ordez, arduradun edo hezitzaile baten beharra dagoela azpimarratu da.
 - 8-12 adin tarteko espazioa diseinatzeko, gaztetxo hauen iritzi, ekarpen eta ideiak jasotzeko prozesu bat abiatzea proposatu da. Beraien espazioa izango denez, beraien esan beharko dute zer eta nolakoa izan behar den.
 - Talde batean ere, Txapligu adin tarte horretako espazioarekin osagarri egin daitekeela komentatu da. Txapligu egitasmoaren espazio erreferentziala bihurtu, nahiz eta beste haur batzuk ere espazio eta jarduera hori erabil dezaketen.
 - Gune irekian ere gurasoen elkarlana bultzatu beharra aipatu da, behar bada gurasoek hezitzaileen laguntza eta formakuntzarekin sortu ditzakete gaztetxoentzat ekintzak.
 - Gune askea, herri erdigunean dagoenez, gainezka egotearen kezka aipatu da, eta askea izanik ere izen-ematea egon beharko litzakeela aipatu da.
 - Gune askeko gurasoak, 8-12 urte arteko gaztetxoaren ardura hartzea oso zaila dela aipatu da (zilegitasunik ez dutelako ez gaztetxoaren eta ez gaztetxo horien gurasoen aurrean). Eta bestetik 8-12 urteko haurrak deseroso egongo dira gurasoak dauden espazioan (nahiz eta beraien gurasoak ez izan).
 - Aste-bukaeratan Gune gidatua itxita egotea aurreikusten bada, eta gune askearen eskaera zabala bada, Gune Gidatuaren zati bat, aske moduan erabiltzea proposatu da. Horretarako ludotekako materiala gordetzeko aukera bermatu beharko litzateke.
3. Talde lana: guneak adinka edo ezaugarri bereiziko dira?



- 0-3 eta beste adin tarteen arteko desberdintasunak direla medio, hauentzat nolabait azpi-gune lasai bereizi bat nabarmentzea proposatu da. Gurasoek beldurra dute gaztetxoek haur txikiekin espazioa partekatzerakoan nahigabeak suertatu daitezkeelako. Halere, beste adineko haur batek gune horretan jolasteko beharra badu, zabalik egongo litzateke.
- Azpi-gune horretara edonor sartu ahalko litzakeela aipatu da nahiz eta nagusiagoa izan, betiere errespetuz sartzen bada.
- Horregatik adinka baino, azpiguneak bereiztea proposatu da (lasaia, eskulanak, psikomotrizitatea, etab..)
- Gune gidatuari dagokionez, aurreko saioan azpimarratutako ezaugarriak oinarri dituela, hori kudeatuko duen taldeak zehaztu beharko luke aurkeztutako proiektuan, beraien proiektu hezitzailea: adinka banaketa egongo den, guneak izango diren edota eredu mistoko apustua egingo duten.

ONDORIOZ:


Astean zehar arratsaldez:



Astean zehar goizez:



Asteburuetan:



5. Saioan, apirilak 14 goizez, talde dinamikan jasotako ekarpenak.

- Hasieran gune bereziekin hastearekin ados agertu dira hezitzaileak, nahiz eta gerora gune biak osotasunean kontsideratu beharra dagoela aipatu den, hori bailitzake beraien ustetan eredurik egokiena.
- 3-12 urte arteko gune gidatuan identifikatuta egon beharko lirateke guraso eta haurrak.
- Gaur egungo ludotekan ibiltzen diren haurren guraso gehiengoa gazteleraz jarduten da eta eredu hezitzailea euskalduna da. Guraso horien partehartzeak talka egiten du eredu euskaldunarekin. Kontutan hartzekoa.
- 8-12 urte arteko gaztetxoei beraien aisialdirako zer nahi duten galdetzea adostu da.
- Txapliguren presentziaren inguruan zalantzak agertu dira. Derrigorrezkoa izango al da izenematea?
- Txapligun parte-hartzen duten gaztetxoak, hasiera baten beraien kontura aske ibiltzen dira, programaketan parte hartu gabe. Ondoren, dinamikak berak erakartzen ditu.
- Guneak banatzerako orduan, denon artean sortzea guneen banaketa.

- Udaletzeko ordezkariak prozesuarenganako beraien usteak azaldu dituzte:
 - o Prozesua banatzea egokia litzatekeela aipatu dute, ondoren bi prozesuak bateratu eta elkarlana adosteko.
 - Alde batetik hezitzaileak, heziketa eredu adosteko.
 - Beste aldetik gurasoak, elkarte/talde/asanblada sortze aldera.
 - o Autoeratutako gune bat izatea gustatuko litzaioke udalari
 - o Udal prest agertu da aurrekontu bat zehaztu eta gurasoek aurrekontu hori kudeatzea beraien erabakitako ekintzetarako.